



III. ERANSKINA BATXILERGOA

2020-21 ikasturteko curriculum-antolamendua

Batxilergoko curriculum-antolamendua Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen irailaren 6ko 127/2016 Dekretuaren 14., 15. eta 16. artikuluetan jasotakoa da.

Ebaluazioaren izaera

Ikaslearen ikaskuntzaren ebaluazioa etengabekoa eta irakasgaien arabera bereizia izango da. Irakasgai bakoitzeko irakasleek erabakiko dute, ikasturte amaieran, ikasleak helburuak lortu dituen eta dagozkien konpetentzien eskuratze-maila egokia erdietsi duen. Horretarako, irakasle taldeak, ikasle bakoitzaren irakasleek osatuta eta tutoretza egikaritzen duenak koordinatuta, kontuan hartuko ditu curriculumaren elementuak, ikasle bakoitzaren ikaskuntza-prozesuaren bilakaera irakasgai guztietan, eta ikasturtean zehar izan duen heldutasuna eta errendimendu akademikoa, Batxilergoaren helburuei dagokienez.

Neurririk egokienak ezarriko dira ebaluazioak egiteko baldintzak 127/2016 Dekretuaren 45. artikuluan aintzat hartzen diren hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen beharretara egoki daitezen.

Nolanahi ere, ikasleak etengabe ebaluatzeko, behar-beharrezkoa da ikasleak eskoletara eta irakasgai bakoitzerako programaturako jardueretara erregularri joatea. Ikastetxeek beren Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamenduan edo Barne Araubideko Erregelamenduan ezarriko dute ikasturte eta ikasgai bakoitzeko gehieneko hutsegite kopurua, aipatutako 201/2008 Dekretuan xedatutakoaren arabera. Hortik aurrera, etengabeko ebaluaziorako eskubidea galduko da, matrikulatutako ikasle guztiek egin ahal izango duten ezohiko deialdia ezertan galarazi gabe.

Ebaluazio-prozedurak eta tresnak

Etengabeko ebaluazioa ikasleen hezkuntza-errendimenduaren ebaluazioan objektibotasuna errazten duen tresna da. Horretan bereziki laguntzen dute taldeko irakasle guztien baterako parte-hartzeak eta, hala badagokio, Orientazio Sailaren lankidetzak.

Etengabeko ebaluazioaren esparruan, ikasturtean zehar ikasleen prestakuntza-aurrerapenen progresioari buruz jasotako informazioa funtsezko elementua izango da azken ebaluazioari eta mailaz igotzeari buruzko erabakiak hartzeko orduan.



Egoera epidemiko-sanitarioaren ondorioz, zenbait ikastetxetan, une batzuetan, ingurune ez-presentzialetan garatutako metodologia- eta ebaluazio-prozedurak erabili dira. Prozedura horiek informazio esanguratsua eman behar dute, horien ebaluazioa ere kontuan hartzen baita azken ebaluazio-prozesuan. Jarraibide hauen VI. eranskinean eskaintzen dira horri buruzko orientazioak.

- Aurreko mailan gainditu gabeko irakasgaien ebaluazioa

Ezin da 2. mailako irakasgai bat kalifikatu aldezturik 1. mailako bere homonimoa gainditu gabe, ezta 1. mailako irakasgai jakin bat gainditu izana eskatzen duen bigarren mailako irakasgai bat ere, 127/2016 Dekretuaren III. eranskinean zehazten den bezala, bertan jasotako salbuespenekin. Ikusi IV. eranskina.

Sail didaktikoek indargarri-programa bat antolatu behar dute bigarren mailara gainditu gabeko irakasgaiekin igarotzen diren ikasleentzat, kalifikazio negatiboa eragin zuten zailtasunak eta konpetentzia-gabeziak gainditzeko. Horretarako, urteko indargarri-programa bat egingo dute hala eskatzen duen ikasle bakoitzarentzat, eta, bertan, eska daitezkeen gutxieneko edukiak, gomendatutako jarduerak eta plana ebaluatzeko programatutako prozedurak eta uneak adieraziko dituzte. Halaber, bere garaian kalifikazio negatiboa eragin zuten zailtasunak gainditu direla egiaztatzeko proba partzialak programatuko dituzte.

- Ebaluazio-txostenak

Ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan eskolatuta egon ziren ikastetxeen bestelakoetan egiten badute Batxilergoa, ikastetxe hartzaileek ikasleen jatorrizko ikastetxeekin koordinatzeko mekanismoak ezarriko dituzte, lortutako ikaskuntza-maila eta hezkuntza-premia garrantzitsuenak hobeto ezagutzeko. Bereziki, ikasturteko azken hiruhilekoan, zuzendaritza-taldeak, orientatzailearen parte-hartzearekin, bilerak sustatuko ditu ikasleen jatorrizko ikastetxeekin. Matrikula-prozesua amaitzean, ikasle bakoitzaren azken ebaluazio-txostena eskatuko die jatorrizko ikastetxeei.

Batxilergoko lehenengo mailan tutoretza egikaritzen duten irakasleek beren taldeko ikasleen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken ikasturteko azken ebaluazio-txostena aztertuko dute. Horri esker, ikasle bakoitzaren bilakaera eta haren inguruabar pertsonalak eta testuingurua hobeto ezagutu ahal izango dira. Irakasgai guztietako irakasleei helaraziko dizkiete ikasle bakoitzaren ibilbide akademikoari buruzko alderdirik garrantzitsuenak.

Eskolatzearen lehen hilabetea amaitu baino lehen, taldeko tutoreak ebaluazio-saio baterako deia egingo du, irakasgaien hezkuntza-konpetentzien eskuratze-mailari dagokionez, ikasleen hasierako egoera zer-nolakoa den jakiteko eta baloratzeko.

Hasierako ebaluazioa izango da irakasle taldearen erreferentzia-puntua, curriculumaren garapenari buruzko erabakiak hartzeko eta ikasleen ezaugarri eta ezagutzetara egokitzeko.



Hasierako ebaluazioaren emaitzaren ondorioz, irakasle taldeak curriculum egokitzeko behar diren neurriak hartuko ditu hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleentzat.

Maila bakoitzean zehar, ohiko eskolaldiaren barruan, gutxienez hiru ebaluazio-saio egingo dira ikasle talde bakoitzerako, hasierako ebaluazio-saioaz gain, ikastetxeek ondorio horietarako beren hezkuntza-proiektuetan jaso dezaketena ezertan galarazi gabe.

Tutoreak, maila bakoitzean aurreikusitako ebaluazio-saio bakoitzaren ondoren, edo inguruabarrek hala aholkatzen dutenean, ikaslearen ikaskuntza-prozesuaren emaitza jasotzen duen txosten bat egingo du, eta gurasoei edo legezko tutoreei entregatuko zaie, ikasle adingabeen kasuan. Txosten horretan irakasgai bakoitzean lortutako kalifikazioak jasoko dira, baita eskolako errendimenduari, gizarte- eta hezkuntza-integrazioari eta, hala badagokio, aurreikusitako indargarri eta laguntza-neurri orokorrei buruzko informazioa ere.

Ikasturte bakoitzaren amaieran, azken ebaluazioaren ondorengo txostenean, aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, oinarrizko konpetentzien eskuratze-maila eta hurrengo mailara igarotzeko erabakia ere jasoko dira, 1. mailaren kasuan.

Ikasturte amaierako ebaluazioa

Azken ebaluazio-saioa eta ohiko azken ebaluazioa saio berean egin ahal izango dira.

Lehen maila amaitzean, azken ebaluazio-saioan, ikasturteko irakasgaien azken kalifikazioa formulatuko da.

Bigarren mailari dagokion ebaluazioan, amaierako kalifikazioa formulatzean, irakasleek kontuan hartu beharko dituzte ikasleek goi-mailako ikasketak egiteko dituzten aukerak.

Ebaluazio negatiboa duten ikasleak borondatez aurkeztu ahal izango dira gaingaitu gabeko irakasgaien ezohiko deialdira.

Ohiko azken ebaluazioa etengabeko ebaluazioaren amaiera da.

Ikasturte bakoitzaren amaieran, ohiko azken ebaluazioa eta ezohiko azken ebaluazioa ere egingo dira, aurreko ikasturteetan gaingaitu gabeko irakasgaiak dituzten ikasleak ebaluatzeko. 2. mailako ohiko eta ezohiko ebaluazioen aurretik egingo dira.

IV. eranskinean dokumentazio akademikoa betetzeari buruzko jarraibideak eskaintzen dira, baita batez besteko notaren kalkulari eta ohorezko matrikulari buruzko informazioa ere (ohorezko aipamena).



Modalitate-aldaketak

Titulua modalitate baten bidez lortzeko, gutxienez eskatzen diren irakasgai guztiak gainditu behar dira. Modalitate-aldaketa egiteko aukera ematen duten egoerak Dokumentazio akademikoaren atal espezifikoan zehazten dira (IV. eranskina).

Ikasleak mailaz promozionatzea

Ikasleak Batxilergoko lehen mailatik bigarren mailara igaroko dira lehen mailako irakasgai guztiak gainditzen dituztenean edo gehienez ere bi irakasgaitan ebaluazio negatiboa dutenean. Nolanahi ere, bigarren mailan matrikulatu beharko dute gainditu gabeko lehen mailako irakasgaietan, edo, hala badagokio, ikasitako gainditu gabeko irakasgaiak ordeztzen dituzten lehen mailako beste irakasgai batzuetan. Ikastetxeek errekupeazio-jarduerak eta gainditu gabeko irakasgaien ebaluazioa antolatu beharko dituzte.

Atal honen ondorioetarako, ikasleak gutxienez ikasi behar dituen irakasgaiak bakarrik zenbatuko dira.

Batxilergoa egiteko lau ikasturteko gehieneko epea gainditu gabe, ikasleek behin bakarrik errepikatu ahal izango dute Batxilergoko maila bakoitza. Hala ere, salbuespen gisa, maila bat bigarrenaz errepikatu ahal izango dute, irakasle taldeak aldeko txostena eman ondoren.

Ebaluazio-dokumentu ofizialak

Batxilergoko ebaluazio-dokumentazio akademikoari eta hori betetzeari eta baliozkotzeari buruzko oinarrizko alderdiei dagokien guztia ebazpen honen IV. eranskinean jasota dago.

Batxilergoko titulua

Batxiler-titulua lortzeko, ebaluazio positiboa izan beharko da batxilergoko bi mailetakoko irakasgai guztietan, nahiz eta, salbuespen gisa, irakasle taldeak erabaki dezakeen irakasgai guztiak, bat izan ezik, gainditu dituen ikasleak batxilergoko titulua lortzea, baldin eta irakasgai horri dagozkion eskoletan huts egitea jarraitua eta justifikatu gabea izan ez bada eta titulu horri lotutako helburuak eta konpetentziak lortu dituela irizten bazaio. Nolanahi ere, batxiler-titulua lortzeko, irakasgai bakoitza gainditzeko eskatzen den **batez besteko** kalifikazioa edo handiagoa beharko da.

Lanbide Heziketako teknikariaren edo goi-mailako teknikariaren titulua edo Musikako edo Dantzako lanbide-irakaskuntzetako teknikariaren titulua duten ikasleek batxiler-titulua lortu ahal izango dute, ikasleak hautatzen duen batxilergoko modalitateko ardatz-irakasgaien blokeko irakasgai orokorrak ikasi eta gaindituta.



HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación

Atzerriko ikasketetatik datozen ikasleak (ikusi jarraibide hauen IV. eranskina)

Helduentzako Batxilergoa

Helduentzako Batxilergoko ebaluazioari dagokionez, pertsona helduen Batxilergoko irakaskuntza arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko uztailaren 26ko Aginduak (2010/09/10eko EHAA) xedatutakoa beteko da, 127/2016 Dekretua eta indarrean dauden geroztiko beste jarraibide batzuk urratzen ez dituen heinean.

Berrikusteko eta erreklamatzeko prozedurak

Berrikusteko eta erreklamatzeko prozedurak jarraibide hauen V. eranskinean jasotzen dira.